



ESTADISTIKA
ORGANOA

ORGANO
ESTADÍSTICO

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAILA
*Zerbitzu Zuzendaritza
Estatistika Organo Berezia*

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA
*Dirección de Servicios
Órgano Estadístico Específico*

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA

ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTADISTIKA (EEEE) 2018ko 1. hiruhilekoa

Emitza nagusiak

*Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailaren
Estatistika Organo Berezia*



1. OBRA HANDIKO LIZENTZIAK

Emandako obra-lizentzien kopuruak behera egin du Araban eta Gipuzkoan aurreko hiruhilekoarekin alderatuta; alabaina, Bizkaian eta Gipuzkoan gora egin du 2017ko hiruhileko berarekin alderatuta

Eraikuntzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistikaren arabera (EEEE), 2018ko lehen hiruhilekoan obra handiko 799 lizentzia eman zituzten guztira Euskal Autonomia Erkidegoko (EAE) udalek. Emaitza horiek 2017ko laugarren hiruhilekoan jasotakoak baino nabarmen apalagoak dira. Izan ere, 61 lizentzia gutxiago eman ziren, eta horrek esan nahi du % 7,1eko murrizketa izan dela datu erlatiboari erreparatuta. Aurreko urteko hiruhileko berarekin konparatuta, aldiz, jarduerak gora egin du: 61 lizentzia gehiago onartu dira; beraz, % 8,3ko hazkundera izan da.

Bizkaian eman dira hiruhilekoko obra handiko lizentzien % 58,1, guztira 464. Atzetik du Gipuzkoa 176 lizentziarekin, guztien % 22,0. Gainerako 159 lizentziak, guztien % 19,9, Arabakoak dira.

EAEko lurralde historikoen artean, Araban egin du gehien behera obra handiko lizentzien kopuruak 2017ko laugarren hiruhilekoaren eta 2018ko lehenengoaren artean. Lurralde horretan, kontuan hartutako lizentzien kopuruak % 24,3 egin du behera erreferentzia-aldian (51 lizentzia gutxiago). Gipuzkoako beherakada Arabakoa baino apalagoa izan da: aurreko hiruhilekoan baino 11 lizentzia gutxiago, hau da, % 5,9ko beherakada. Bizkaian, ordea, ia lizentzia kopuru bera eman da (+% 0,2) 2017ko laugarren hiruhilekoan eta 2018ko lehenengoan, lizentzia bat gehiagorekin.

Urtearteko emaitzei dagokienez, positiboak izan dira Gipuzkoan eta Bizkaian, baina intentsitate desberdinez. Bizkaiko Lurralde Historikoa 45 lizentziako igoera absolutua izan da 2017ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta; beraz, % 10,7ko gorakada erlatiboa. Gipuzkoan, urtearteko igoaldia 40 lizentziakoa izan da, eta epealdiko gorakada erlatiboa % 29,4koa izan da. Araban, aitzitik, emandako lizentzien kopuruaren beherakada ageri da; izan ere, 2017ko lehen hiruhilekoan obra handiko 183 lizentzia eman ziren, 2018ko lehen hiruhilekoan baino 24 gehiago (159 lizentzia, % 13,1eko beherakadarekin).

Birgaitzeko obrei lotutako lizentziak nagusi dira oraindik ere

2018ko lehen hiruhilekoan, emandako **lizentzia moten arabera banaketan**, mantendu egin da aurreko hiruhilekoetan nabarmendutako joera. Argi eta garbi nagusitzen dira birgaitzeko obretarako lizentziak.

Zehazki, hiruhileko horretan birgaitze-lanetarako lizentziak obra handiko lizentzien % 83,1 izan dira (2017ko hirugarren hiruhilekoko % 80,9ren gaineratik), oin berriko eraikinetarako lizentziak % 14,6 (2017ko laugarren hiruhilekoko % 17,0ren azpitik), eta eraispentarako lizentziak % 2,3. Kopuru absolutuak honako hauek dira: birgaitzeko 664 lizentzia (2017ko laugarren hiruhilekoan baino 32 gutxiago, % 4,6ko



beherakadarekin), 117 eraikuntza berrirako (29 lizentzia gutxiago, % 19,9ko beherakadarekin) eta eraisteko 18 lizentzia, aurreko hiruhileko kopuru berbera.

2018ko lehen hiruhilekoan, oin berriko lizentziek eta birgaitzekoek emandako lizentzien kopuru osoan egiten duten zatia modu diferentean banatzen da, aztertutako lurralde historikoaren arabera. Gipuzkoan, oin berriko lizentziek pisu erlatibo zertxobait handiagoa dute (emandako obra handiko lizentzien % 19,3; Araban, aldiz, halakoak % 17,0 dira, eta Bizkaian, azkenik, % 12,1). Horrek kontrako efektua dauka birgaitzeko obra handiko lizentzietan; eraispenen eragin desberdinaren ñabardurarekin: Gipuzkoan, birgaitzeko lizentziak emandako lizentzia guztien % 76,7 dira; Araban, aldiz, proportzio hori % 81,1 da, eta Bizkaian % 86,2.

1. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2018ko 1. hiruhilekoa

(Hiruhilekoko balio absolutuak eta ehuneko bertikalak. (Aldakuntza absolutua eta portzentajeak, aurreko hiruhilekoarekin eta aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK		2018ko 1. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza		Aurreko urteko hiruhileko berberarekiko aldakuntza	
		Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %	Kopurua	Aldak. %
EAE	Guztira	799	100,0	-61	-7,1	61	8,3
	Oin berrikoa	117	14,6	-29	-19,9	11	10,4
	Birgaitzea	664	83,1	-32	-4,6	46	7,4
	Eraispena	18	2,3	0	0,0	4	28,6
Araba	Guztira	159	100,0	-51	-24,3	-24	-13,1
	Oin berrikoa	27	17,0	-16	-37,2	3	12,5
	Birgaitzea	129	81,1	-33	-20,4	-27	-17,3
	Eraispena	3	1,9	-2	-40,0	0	0,0
Bizkaia	Guztira	464	100,0	1	0,2	45	10,7
	Oin berrikoa	56	12,1	-6	-9,7	-1	-1,8
	Birgaitzea	400	86,2	5	1,3	44	12,4
	Eraispena	8	1,7	2	33,3	2	33,3
Gipuzkoa	Guztira	176	100,0	-11	-5,9	40	29,4
	Oin berrikoa	34	19,3	-7	-17,1	9	36,0
	Birgaitzea	135	76,7	-4	-2,9	29	27,4
	Eraispena	7	4,0	0	0,0	2	40,0

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxegintzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2018ko 1. hiruhilekoa

2017ko laugarren hiruhilekotik 2018ko lehenera bitartean, Araban jaitsiera nabarmena izan da eraikuntza berriko lizentzietan (-% 37,2), eta, maila apalagoan, birgaitze-lanen kasuan (-% 20,4). Gipuzkoan, era berean, joera negatiboa ikusi da obra berriari dagokionez (-% 17,1), eta, maila apalagoan, birgaitzeko lizentzietan dagokionez (-% 2,9). Bizkaian, beherakada erlatiboa esanguratsua da oin berriko lizentzietan



dagokienez (-% 9,7), baina zertxobait gora egiten dute birgaitze-jarduerekin lotutakoek (+% 1,3).

Urtearteko bilakaeran, Bizkaiak izan du bilakaerarik txarrena oin berriko lizentzietan, eta atzerapena izan du emandako mota horretako lizentziei dagokienez (-% 1,8). Gipuzkoaren kasuan, aldiz, % 36,0ko gorakada erregistratu da, eta maila apalagoko igoaldia izan da Araban ere (+% 12,5). EAE osoa aintzat hartuta, urtearteko aldakuntza positiboa hautematen da obra berriko lizentzietan; hala, 2017ko lehen hiruhilekoarekin alderatuta, +% 10,4ko aldakuntza erregistratu da, obra handiko 11 lizentzia gehiago emanda.

Birgaitze-lizentziek ere gora egin dute EAEn, 2017ko lehen hiruhilekoaren eta 2018koaren artean, nahiz eta obra berrirako lizentziek baino motelago (+% 7,4, oin berrikoen +% 10,4ren aldean). Igoera hori Bizkaiaren gertatutako gorakadarekin dago lotuta (+% 12,4), EAeko batezbestekoa baino handiagoa izan baita, bai eta Gipuzkoan neurri handiagoan izandakoarekin ere (+% 27,4). Araban, aldiz, murriztu egin dira tankera horretako lizentziak (-% 17,3).

Metatutako urtearteko datuek erakusten dutenez, atzeraldi arina ageri da EAEn 2018ko lehen hiruhilekoan emandako lizentzien kopuruan

Urteko datu metatu horiek 2017ko bigarren hiruhilekoaren eta 2018ko lehen hiruhilekoaren artean emandako lizentzia guztiak kontabilizatzen dituzte; aurreko urteko hiruhileko berberena (2016ko bigarren hiruhilekotik 2017ko lehen hiruhilekora) urteko metatuarekin konparaketa eginez gero, ikusten denez, 76 lizentzia gutxiago eman dira, 2017ko epealdi konparagarrian baino % 2,4 gutxiago. Jaitsiera zertxobait handiagoa da oin berriko lizentzien kasuan, EAEn % 12,1eko beherakada izan baita (65 lizentzia gutxiago); birgaitzekoen kasuan, aldiz, -% 0,7 izan da (18 lizentzia gutxiago). Eraisteko soilik diren obretarako emandako lizentzien kopuruak, aldiz, % 11,3 egin du gora, 7 lizentzia gehiago eman baitira.

Birgaitzeari dagokionez, 2018ko lehen hiruhilekoko urteko datu metatuen dinamika ona Bizkaiaren soilik izan da; etxebizitza berriari dagokionez, Gipuzkoan bakarrik egin du onera.

Urtearteko datu metatuak lurralde historikoaren arabera aztertuta agerian geratzen da EAEn dinamika diferenteak daudela.

Bizkaiak gorakada arina izan du azken urtean metatutako lizentzia kopuruan, aurreko urteko epealdi berberarekin alderatuta (+% 1,8 egin du gora, 30 lizentzia gehiago eman baitira). Izatez, Bizkaiak bakarrik izan du gorakada apala birgaitze-lizentziei dagokienez (+% 6,4). Edonola ere, planta berriko obra-lizentziekin alderatuta, murrizketa handiena ageri duen lurralde historikoa da: -% 25,0, eta 67 lizentzia gutxiago.



2. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. Metatutako urteko datuak, 2018ko 1. hiruhilekoan

(Balio absolutuak eta portzentajea. Urtearteko aldakuntza absolutua eta portzentajezkoa.)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK		Metatua 2017ko 2. hiruhilekotik 2018ko 1. hiruhilekora		Metatua 2016ko 2. hiruhilekotik 2017ko 1. hiruhilekora		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko hiruhileko berberarekin alderatuta	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %
EAE	Guztira	3.148	100,0	3.224	100,0	-76	-2,4
	Oin berrikoa	470	14,9	535	16,6	-65	-12,1
	Birgaitzea	2.609	82,9	2.627	81,5	-18	-0,7
	Eraispena	69	2,2	62	1,9	7	11,3
Araba	Guztira	762	100,0	826	100,0	-64	-7,7
	Oin berrikoa	131	17,2	131	15,9	0	0,0
	Birgaitzea	617	81,0	682	82,6	-65	-9,5
	Eraispena	14	1,8	13	1,6	1	7,7
Bizkaia	Guztira	1.740	100,0	1.710	100,0	30	1,8
	Oin berrikoa	201	11,6	268	15,7	-67	-25,0
	Birgaitzea	1.506	86,6	1.416	82,8	90	6,4
	Eraispena	33	1,9	26	1,5	7	26,9
Gipuzkoa	Guztira	646	100,0	688	100,0	-42	-6,1
	Oin berrikoa	138	21,4	136	19,8	2	1,5
	Birgaitzea	486	75,2	529	76,9	-43	-8,1
	Eraispena	22	3,4	23	3,3	-1	-4,3


Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxegintzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2018ko 1. hiruhilekoa

Araban, 64 lizentziako beherakadak urtearteko % 7,7ko atzerakada metatua ekarri du obra-lizentzien guztizko kopuruan, baina lurralde horretan diferentzia handiak ikusten dira emandako lizentzien kopuruaren bilakaeran, motaren arabera. Birgaitzeko lizentziak % 9,5 murriztu diren bitartean, oin berriko lizentzien kopurua egonkortu egin da (+% 0,0), bi epealdietan mota horretako 131 lizentzia eman baitira.

Gipuzkoaren kasuan, nabarmentzekoa da emandako lizentzien % 6,1eko murrizketa, birgaitze-obretarako lizentzien beherakadak bakarrik eragindakoa. Izatez, obra-lizentzia mota hori % 8,1 murriztu da urte artean (43 lizentzia gutxiago) eta, aldi berean, oin berriko lizentzien % 1,5eko igoera izan dute, 2 lizentzia gehiago eman direlako.



1. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera. EAE. 1998-2018



Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxegintzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2018ko 1. hiruhilekoa

2. EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIAK ZER ERABILERATARAKO ZIREN

2018ko lehen hiruhilekoan okerrera egin du bizitegirako diren obra handiko lizentzien kopuruak, baita bizitegirako ez direnenak ere, aurreko hiruhilekoarekin eta aurreko urteko hiruhileko berberarekin alderatuta

2018ko lehen hiruhilekoan, obra handiko 781 lizentzia eman dira, eraikuntza berriak egiteko edo eraikinak birgaitzeko. Lizentzia horietako gehienak (601, hau da, guztizkoaren % 77,0) **bizitegi-erabilerarako** proiektuekin lotu dira, eta gainerako 180 lizentziak, (% 23,0), berriz, bizitegi-erabilerarako ez diren proiektuekin¹.

2018ko lehen hiruhilekoan **bizitegi-erabilerarako ez diren** obra-lizentziak dagokien sektorearen arabera aztertuz gero, ikusten da zerbitzuen sektoreko erabilerarako direnak

¹ Txostenaren atal honetan egiten den azterketatik bazter geratzen dira eraisteko obra-lizentziak, ez direlako ezertarako erabiltzen obra egikaritu ondoren (geroago eraikinik egiten bada, horretarako beste lizentzia-eskari bat tramitatu beharko da). Kontuan hartu beharreko beste alderdi bat da erabilera mistoko eraikinak (bizitegirakoak eta bizitegirakoak ez direnak) bizitegi-erabilerako kategorian sartzen direla.



nabarmendu direla (lizentzia guztien % 55,0). Industriaren eta energiaren sektorerara beste % 31,7 bideratu zen, eta gainerako % 13,3, berriz, lehen sektoreko jardueretara.

Lizentzien hiruhilekoko bilakaerari dagokionez, 2017ko laugarren hiruhilekoaren eta 2018ko lehenengoaren artean, ikusten da bizitegi-erabilerako proiektuekin lotutakoek behera egin dutela (-% 5,4), eta beherakada hori nabarmenagoa izan dela bizitegi-erabilerakoak ez diren lizentziei dagokienez (-% 13,0).

Bizitegitarako ez diren lizentzien kopuruak behera egin du 2017ko laugarren hiruhilekoaren eta 2018ko lehenengoaren artean (-% 13,0). Beherakada horrek batik bat **zerbitzuen** sektorearekin (-% 22,0) eta **industriarekin eta energiarekin** (-% 8,1 izan du lotura; **lehen sektoreak**, aldiz, % 33,3ko gorakada izan du.

2017ko eta 2018ko lehen hiruhilekoen arteko **urteko** konparaketak datu positiboak ematen ditu bizitegitarako erabilerarako lizentziei (+% 9,7) zein bizitegitarako ez den erabilerarako lizentziei dagokienez (+% 2,3).

3. taula. Obra handiko lizentziak, obra zer erabileratarako zen kontuan hartuta. 2018ko 1. hiruhilekoa

(Balio absolutuak eta portzentajea. Urtearteko aldakuntza absolutua eta portzentajeakoa.)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	2018ko 1. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza		Aurreko urteko hiruhileko berberarekiko aldakuntza	
	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %	Kopurua	Aldak. %
Guztira	781	100,0	-61	-7,2	57	7,9
Bizitegi-erabilerarako	601	77,0	-34	-5,4	53	9,7
Bizitegitarako ez direnak	180	23,0	-27	-13,0	4	2,3
- Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	24	13,3	6	33,3	6	33,3
- Industria eta energia	57	31,7	-5	-8,1	5	9,6
- Zerbitzuak	99	55,0	-28	-22,0	-7	-6,6

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxegintzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2018ko 1. hiruhilekoa

2017ko eta 2018ko lehen hiruhilekoen artean bizitegitarako ez diren lizentziak ematearen barne-dinamikari dagokionez, gorakadak erregistratu dira jarduera-sektore guztietan, zerbitzuen sektorean izan ezik. Igoerarik handiena nekazaritzaren sektoreak izan du (+% 33,3), eta intentsitate txikiagoarekin industria eta energiaren sektoreak (+% 9,6); zerbitzuen sektorerako, aldiz, (-% 6,6) lizentzia gutxiago eman dira.

Urtearteko kopuru metatuetan, behera egin du bizitegi-erabilerarako ez diren lizentzien kopuruak eta, maila apalagoan, baita bizitegi-erabilerakoena ere.

Metatutako urtearteko adierazleen ikuspegia negatiboa da bi tipologiaetan, baina intentsitate desberdinarekin. Hartara, 2017ko lehen hiruhilekora arteko urtetik urterako



kopuru metatuak (2016ko bigarren hiruhilekotik 2017ko lehenera artekoak) 2018ko hiruhileko berdinari dagozkionekin (2017ko bigarren hiruhilekotik 2018ko lehenera artekoak) alderatzean, datuek adierazten dute atzerakada txikia izan dela bizitegi-erabilerarako ematen diren lizentzietan (-% 0,7ko igoera), bai eta bizitegi-erabilerarako ez direnetan ere, nabarmenago (-% 8,2).

4. taula. Obra handiko lizentziak, obra zer erabileratarako zen kontuan hartuta. Metatutako urteko datuak, 2018ko 1. hiruhilekoan

(Balio absolutuak eta portzentajea. Urtearteko aldakuntza absolutua eta portzentajezkoa.)

OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	Metatua 2017ko 2. hiruhilekotik 2018ko 1. hiruhilekora		Metatua 2016ko 2. hiruhilekotik 2017ko 1. hiruhilekora		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko hiruhileko berberarekin alderatuta	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %
Guztira	3.079	100,0	3.162	100,0	-83	-2,6
Bizitegi-erabilerarako	2.333	75,8	2.349	74,3	-16	-0,7
Bizitegitarako ez direnak	746	24,2	813	25,7	-67	-8,2
- Nekazaritza, abeltzaintza, basogintza eta arrantza	75	10,1	90	11,1	-15	-16,7
- Industria eta energia	226	30,3	199	24,5	27	13,6
- Zerbitzuak	445	59,7	524	64,5	-79	-15,1

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxegintzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2018ko 1. hiruhilekoa

Bizitegitarako ez diren obra-lizentziei dagokienez, 2018ko lehen hiruhilekoko urteko datu metatuek erakusten dute datuek oro har txarrera egin dutela lehen sektorean emandako lizentzien bilakaeran (-% 16,7), baita zerbitzuetan ere (-% 15,1). Industriaren eta energiaren sektoreak, ordea, +% 13,6ko hazkundera izan du.

3. AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZA-KOPURUA, OBRA HANDIKO ZENBAT LIZENTZIA EMAN ZIREN KONTUAN HARTUTA

Etxebizitzak eraikitze aurreikuspenak okerrera egin du aurreko hiruhilekoaren aldean, baita iaizko hiruhileko beraren aldean ere

2018ko lehen hiruhilekoan emandako bizitegi-erabilerarako obra handiko 601 lizentziek berekin dakartzate 868 etxebizitzarekin zerikusia duten jarduketak (aurreko hiruhilekoan baino 987 gutxiago). Etxebizitza horietatik 643 oin berriko jarduketei lotzen zaizkie, eta gainerako 225ak birgaitzeko prozesuan dauden etxebizitzak dira².

² Birgaitutako etxebizitzaren kontaktan ez dira kontuan hartzen etxebizitza bateko baino gehiagoko etxebizitza-erakinak, zeinetan eraikineko elementu komunei soilik eragiten dieten birgaitze obrak egiten diren. Eraginpean dauden etxebizitza birgaituen kontaktan, honako esku-hartze hauek hartzen dira kontuan soil-soilik: familia bakarreko eraikin edo etxebizitzaren birgaitze integralak eta etxebizitza



Zehaztu behar da eraginpean dauden oin berriko etxebizitzaren bolumenak gorabehera handiak izan ahal dituela hiruhilekoan, hiruhileko batetik bestera onartzen diren tamaina handiko sustapenen kopuruaren arabera. Aurreko hori kontuan hartuta, jaitsiera handia izan da 2017ko laugarren hiruhilekoaren eta 2018ko lehenaren artean EAEn aurreikusitako eraikuntza berriko etxebizitza kopuruan (-% 59,7). 2017ko lehen hiruhilekoko kopurua 2018ko hiruhileko berbereko kopuruarekin konparatzen bada, ikusten da egoerak txarrera egin duela baina modu ez hain nabarmenean eraikuntza berriko etxebizitzaren aurreikuspenen, -% 35,7 dela.

Beste alde batetik, okertzeko egoera ikusten da ere 2018ko lehen hiruhilekoan birgaitzeko aurreikusten ziren etxebizitzaren kopuruan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (-% 13,1), baina gora egin du 2017ko hiruhileko berberarekin alderatuta (+% 21,0).

2018ko lehen hiruhilekoan, **Bizkaia** da aurreikusitako jarduketa gehien dituen lurraldea, eta, guztira, 365 etxebizitza daude jarduketa horiei lotuta; haietako % 70,7 oin berrikoak dira (258 etxebizitza). Lurralde horretan, aurreko hiruhilekoarekin alderatuta nabarmen egin du behera oin berriko etxebizitza-kopuruak (-% 72,0), eta intentsitate txikiagoz 2017ko hiruhileko berarekin alderatuta (-% 58,5). Birgaitu beharreko etxebizitzaren kopuruari dagokionez, horien kopuruak ere behera egin du 2017ko laugarren hiruhilekoari dagokionez (-% 19,5) baina gora egin du 2017ko lehenen hiruhilekoari dagokionez (+% 21,6).

Gipuzkoan, berriz, 310 etxebizitzatarako lizentziak eman dira 2018ko lehenengo hiruhilekoan. Oin berriko 252 etxebizitza eraikitzea aurreikusten da, eta perspektiba negatiboa ageri da aurreko hiruhilekoarekin alderatuta (-% 29,0), eta intentsitate bertsuarekin egin du behera 2017ko hiruhileko berarekin alderatuta (-% 29,8). Birgaitzeko jardueri dagokienez, aldiz, lurralde horretan egonkor mantendu da birgaituko diren etxebizitzaren kopurua 2017ko laugarren hiruhilekoko datuak eta egungoak alderatzean (+% 0,0), eta gora egin du aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta (+% 7,4).

Araban, azkenik, 193 etxebizitzatarako jarduketak erregistratu dira. Jaitsiera handia ikusten da 2017ko laugarren eta 2018ko lehen hiruhilekoen artean aurreikusitako etxebizitza kopuruan (-% 50,0); azken hiruhilekoko oin berriari lotutako ekintzak gutxitzearekin zerikusia du (-% 58,2); urtearteko bilakaera, aldiz, hobea da (+% 600,0). Beste alde batetik, birgaitzeko jarduketei lotutako etxebizitzaren kopuruak behera egin du % 11,8, 2017ko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta; etxebizitzatarako aurreikusitako birgaitzeko emandako lizentzien kopuruak, aldiz, hobera egin du aurreko urteko hiruhileko berberarekin alderatuta (+% 36,4).

bateko baino gehiagoko eraikin baten barruko bao bateko edo gehiagoko (etxebizitzak) birgaitzea (azken kasu horretan kontuan hartzen da garatutako bereizte edo bategite prozesuetatik ateratzen den etxebizitza kopurua).



5. taula. Aurreikusitako etxebizitzak, obra motaren eta Lurralde Historikoaren arabera. 2018ko 1. hiruhilekoa

(Hiruhilekoko balio absolutuak eta portzentaje bertikalak. (Aldakuntza absolutua eta portzentajezkoa, aurreko hiruhilekoarekin eta aurreko urteko hiruhileko berarekin alderatuta)

AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA		2018ko 1. hiruhilekoa		Aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza		Aurreko urteko hiruhileko berberarekiko aldakuntza	
		Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %	Kopurua	Aldak. %
EAE	Guztira	868	100,0	-987	-53,2	-318	-26,8
	Oin berrikoa	643	74,1	-953	-59,7	-357	-35,7
	Birgaitzea	225	25,9	-34	-13,1	39	21,0
Araba	Guztira	193	100,0	-193	-50,0	130	206,3
	Oin berrikoa	133	68,9	-185	-58,2	114	600,0
	Birgaitzea	60	31,1	-8	-11,8	16	36,4
Bizkaia	Guztira	365	100,0	-691	-65,4	-345	-48,6
	Oin berrikoa	258	70,7	-665	-72,0	-364	-58,5
	Birgaitzea	107	29,3	-26	-19,5	19	21,6
Gipuzkoa	Guztira	310	100,0	-103	-24,9	-103	-24,9
	Oin berrikoa	252	81,3	-103	-29,0	-107	-29,8
	Birgaitzea	58	18,7	0	0,0	4	7,4

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxegintzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2018ko 1. hiruhilekoa

Urtearteko kopuru metatuetan hobera egin dute Arabako eta Gipuzkoako emaitzek, oin berriko etxebizitzetara dagokienez; birgaitzearen kasuan, EAEko lurraldeen artean Bizkaian eta Araban egin dute hobera emaitzek

Aurreikusitako etxebizitzaren kopuruan hiruhilekoan izandako gorabehera handiak kontuan hartuta, komenigarria da azterketaren ardatzean emaitzen **urteko dinamika metatua** jartzea. Análisi horren arabera, 2018ko lehen hiruhilekora arte metatutako bizitegi-erabilerarako urteko jardueraren arabera, aurreikusita dauden jarduketek 4.946 etxebizitzari eragiten diote guztira. Horrek esan nahi du % 11,6ko jaitsiera izan dela (650 etxebizitza gutxiago) 2017ko lehen hiruhilekoan metatutako urteko jarduerarekin alderatuta. Beherakada hori batez ere oin berriei lotutako jarduerekin lotzen da, eta horren eraginpean dauden etxebizitzaren kopuruaren % 13,7ko murrizketa erregistratu da (641 etxebizitza gutxiago). Birgaitzeko jarduketek dagokienez, ikusten da emaitzek txarrera egin dutela arinki (-% 1,0, 2017ko lehen hiruhilekoan aurreikusitako jarduketaren eraginpean dauden 911 etxebizitzetatik 2018ko epealdi berbereko 902 etxebizitzetara igarotzean).



6. taula. Aurreikusitako etxebizitzak, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. Metatutako urteko datuak, 2018ko 1. hiruhilekoan

(Balio absolutuak eta portzentajea. Urtearteko aldakuntza absolutua eta portzentajezkoa.)

AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZEN KOPURUA		Metatua 2017ko 2. hiruhilekotik 2018ko 1. hiruhilekora		Metatua 2016ko 2. hiruhilekotik 2017ko 1. hiruhilekora		Urteko metatuaren aldakuntza, aurreko urteko hiruhileko berberarekin alderatuta	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	Aldak. %
EAE	Guztira	4.946	100,0	5.596	100,0	-650	-11,6
	Oin berrikoa	4.044	81,8	4.685	83,7	-641	-13,7
	Birgaitzea	902	18,2	911	16,3	-9	-1,0
Araba	Guztira	843	100,0	620	100,0	223	36,0
	Oin berrikoa	628	74,5	414	66,8	214	51,7
	Birgaitzea	215	25,5	206	33,2	9	4,4
Bizkaia	Guztira	2.412	100,0	3.252	100,0	-840	-25,8
	Oin berrikoa	1.966	81,5	2.857	87,9	-891	-31,2
	Birgaitzea	446	18,5	395	12,1	51	12,9
Gipuzkoa	Guztira	1.691	100,0	1.724	100,0	-33	-1,9
	Oin berrikoa	1.450	85,7	1.414	82,0	36	2,5
	Birgaitzea	241	14,3	310	18,0	-69	-22,3

Iturria: Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Etxegintzari eta Etxebizitzari buruzko Estatistika. 2018ko 1. hiruhilekoa

Dinamika orokorra, hala ere, lurralde bakoitzeko portaera desberdinek baldintzatzen dute. Hala, birgaitzearen arloan Bizkaiak eta Arabak izan dute bilakaera positiboa. Bizkaian urtearteko metatutako kopuruak gora egin du 2017ko eta 2018 lehen hiruhilekoen artean (+% 12,9), eta Araban igoera apalagoa izan da (+% 4,4). Gipuzkoan, aldiz, birgaikuntza-ekintzetan urteko jaitsiera metatu handia gertatu da 2018ko lehen hiruhilekoan (-% 22,3).

Lurraldeen arteko desberdintasunak era berean nabarmenak dira etxebizitza berrien arloan aurreikusitako jarduketeki dagokienez. Kasu horretan, ikusten da Araban jarduera nabarmen hobetu dela (+% 51,7). Gipuzkoak, igoera txikiagoa badu ere, % 2,5 berreskuratu du epe horretan bertan. Bizkaian, aldiz, % 31,2ko beherakada izan da 2018ko lehen hiruhilekorako aurreikusitako etxebizitzaren urteko bolumen metatua, 2017ko hiruhileko berberarekin alderatuta.



ALDERDI METODOLOGIKOAK

Eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko estatistika zentsu-eragiketa bat da, eta bertako informazioa EAEko 251 udalek igortzen dute hilero. Informazio hori udalerrian emandako obra handiko lizentziei buruzkoa da, bai eta etxebizitza babestuak sustatze aldera udalak eskuratutako lurzoruari buruzkoa ere. Bestalde, udalak alokatzeko daukan etxebizitza-parkeari buruzko informazioa ere jasotzen da urtero.

Eraikuntzari eta etxebizitzari buruzko estatistikaren helburu orokorra honako hau da: jakitea Euskal Autonomia Erkidegoan zenbat, zer eta non eraikitzen, birgaitzen eta eraisten den. Udalek emandako obra handiko lizentziak oinarri hartuta, obraren ezaugarri nagusiak (oin berria, birgaikuntza edo eraispina), eraikinaren erabilera eta eragindako etxebizitzak zein diren jakin nahi da.

Definizioak.

Obra handiko lizentzia. Obra handiko lizentzia obra handiak egiteko baimen bat da, tokian tokiko administrazio eskudunak ematen duena, oin berriko edozein eraikuntza mota egiteko edo eraikinak eraitsi edo birgaitzeko, horiek bizitegi-erabilerakoak izan zein ez. Baimenaren helburua da egiaztatzea lizentzia-eskaera bat datorrela hirigintza-araudiak xedatzen duenarekin.

Ondorio horietarako, honako hauek jotzen dira obra handitzat.

a. Oin berriko obra. Eraikin berri bat eraikitzeko obra handia da, aldez aurretik beste eraikin bat osorik eraitsita edo eraitsi gabe. Eraikinak bizitegi-erabilera izan dezake, edo bestelako erabilera bat.

b. Birgaitze-obra. Aurrekoa ez bezala, ez da eraikin berririk eraikitzeko obra handia, baizik eta jada eraikita daudenetan egitekoa, aldez aurretik eraispin partzialak eginda edo egin gabe.

Obraren eraginpean dagoen eraikinak bizitegi-erabilera izan dezake, edo bestelako erabilera bat.

Birgaitze-obra bat obra handitzat jotzeko, arkitekto edo pareko batek ikus-onetsitako proiektu tekniko bat egin beharko da. Proiektu tekniko hori nahitaezko baldintza gisa jaso beharko da lizentzia emateko aurkeztu behar den dokumentazioan, eta baldintza hori betetzen ez dutenak obra txikiko lizentziatzat hartuko dira.

Obra horiek bi motatakoak izan daitezke.

- Handitzeko obra. Lehendik eraikitako azalera handitzen denean, egiturazko elementu berriak erantsita. Handitze hori bertikalean egin daiteke, lurzoruaren



ganean hartutako azalera areagotu gabe (adibidez, beste solairu bat erantsita), edo horizontalean; azken kasu horretan, lurzoruan azalera gehiago hartzen da.

- Erreforma- eta/edo zaharberritze-obra. Eraikinaren azalera eraikia aldatu gabe, eraikinaren egiturazko elementuren bat aldatzen denean edo lehendik ez zegoen hornidura berriren bat ezartzen denean.

Atal honetan jasotako birgaitze-obra handiak hainbat arlotakoak izan daitezke. Ohikoenak hauek dira.

- Eraikinak handitzea horiek jasotzeko obra eginez edo azalera gehiago hartuz
- Igogailuak edo antzekoak jartzea.
- Fatxadaren eta/edo teilatuaren birgaitze osoa.
- Merkataritzako lokal bati bizitegi-erabilera ematea.
- Eraikinean egiturazko aldaketak egitea behar duten etxebizitzaren edo lokalen barne-egokitzapena.
- Etxebizitza bat edo batzuk banantzea edo batzea.
- Beren konplexutasunagatik edo ezaugarri teknikoengatik, edo duten garrantzi ekonomikoagatik, eskumeneko sailak obra handitzat jotzen dituen erreforma-obra.

c. Eraispin-obra. Eraikin bat osoki edo partzialki eraistea da.



ERAIKUNTZARI ETA ETXEBIZITZARI BURUZKO ESTADISTIKA (EEEE) 2018ko 1. hiruhilekoa

EMAITZA NAGUSIAK

AURKIBIDEA

1. OBRA HANDIKO LIZENTZIAK	2
2. EMANDAKO OBRA HANDIKO LIZENTZIAK ZER ERABILERATARAKO ZIREN	6
3. AURREIKUSITAKO ETXEBIZITZA-KOPURUA, OBRA HANDIKO ZENBAT LIZENTZIA EMAN ZIREN KONTUAN HARTUTA	8
ALDERDI METODOLOGIKOAK	12

Taulen aurkibidea

1. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. 2018ko 1. hiruhilekoa	3
2. taula. Obra handiko lizentzien kopurua, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. Metatutako urteko datuak, 2018ko 1. hiruhilekoan	5
3. taula. Obra handiko lizentziak, obra zer erabileratarako zen kontuan hartuta. 2018ko 1. hiruhilekoa	7
4. taula. Obra handiko lizentziak, obra zer erabileratarako zen kontuan hartuta. Metatutako urteko datuak, 2018ko 1. hiruhilekoan	8
5. taula. Aurreikusitako etxebizitzak, obra motaren eta Lurralde Historikoaren arabera. 2018ko 1. hiruhilekoa	10
6. taula. Aurreikusitako etxebizitzak, obra motaren eta lurralde historikoaren arabera. Metatutako urteko datuak, 2018ko 1. hiruhilekoan	11

Grafikoen aurkibidea

1. grafikoa. Obra handiko lizentzien kopuruaren bilakaera, lurralde historikoaren eta hiruhilekoaren arabera. EAE. 1998-2018	6
---	---

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila. Zerbitzu Zuzendaritza. Estatistika Organo Berezia
Donostia-San Sebastián kalea, 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Harremanetarako pertsona: Aitor Puerta

Telefonoa: +34-945-01 69 61; Faxa: +34-945-01 98 56

WEBGUNA: <http://www.euskadi.eus/etxebizitza-estatistikak/>

Helbide elektronikoa: estadisticas-vivienda@euskadi.eus